



JAUNA'RI ESKARAK



AUNGOIKUA'k neure gogua egin eban egun atan, beste gogorik asko irasi euzan.

Berofekaz ludijan bixiñeko bai-egozan gerturik gorputzak, eta Jaungoikua asi zan goguak bananduten. Batzuk bidaldu euzan Amerikaetara ta an jayo ziran Latefi-Batza'n eta Argentina'n; beste batzuk Apirka'ra, baña Europa'n bestetzuk, Deustch'en, London'en eta abaf.

Neure gogua urduri eguan emongo yakon gorputz lagunaren begira. Jaungoikua'k, azke ta buru-jaube-zalia zan gogo a ikusirik, erabagi eban euzko-odoldun gorputza berari laguntzat emotia.

Eta Jaungoikua'k euzkotafa egin ninduban...

Ofeñatik, ezagueraduna nazanetik, bijotz-bijotzez eskafak emoten dautsodaz; enzkotafa ixanik, neuria dalako ludiko abefirik edefena, geure Euzkadi kuñuna.

Bere mendi oflegi-jagijaz, bere basetxe zurijakaz... Poliña, garbija, apala, eztakit zelan esan, baña benetan poztuten naz bere umia nazalako: antzin-antziñan, bere mendijetan afanuak letxe, azke bixi-ziran gixon azkaf-senduak lakoxe euzkotafa nazalako; urte batzuk igaziña, bere uri ta basefi kuñun-txikijetan azke ta alai bixiko diran gixon zoruntsubak lakoxe euzkua nazalako.

Baña ni jayo nazan aldi au aldi ixukofa da. Euzkotafak ezkara orain alai bixi. Arantza gogofa daukagu bijotzan. Geuretzako eguzkija eztago argi, basua ezta alaya; dana iñun, dana iñun... ¡Euzkadi gaxua afotzen jopuñu dogu!

Baña augañik be, aldi lafi onetan jayo nazalako, Jaungoikua'ri eskafak damotsodaz.

España'pian zoruntsubak ezpa-gara gauñko euzkotafak, poztu biaf gara, ol-dozturik Jauna'k autu gañula Euzkadi'k urgazija biaf daunian berau aldeztuteko, ta berafen gustijok egiñalak eginda, ixango garalako Abefi mañia azkatasun-bidian jafiko dogunak.